

ERAKUNDEAREN DATU BILKETA

ERAKUNDEA: GERNIKA-LUMO

URTEA: 2009

TXOSTENAREN DATA: 2009/12/03

GALDERA OROKORRAK

Euskara zerbitzua

	2009
Euskara zerbitzuaren aurrekontua guztira (#)	654.700,00
Euskara zerbitzuaren baliabideak:	
Pertsona kop.	5,00
Ordu kop.	7.164,00

Biztanleria

	2009
Udalerriko biztanleria	16.169,00
Biztanleria adin taldeka:	
Biztanleria <19 (%)	16,90
Biztanleria 20-65 (%)	63,20
Biztanleria > 65 (%)	19,80
Biztanleriaren dentsitatea (Bizt./Km2)	1.807,80
Biztanleria jaioterriaren arabera:	
Biztanleria egoiliarra. EAEn jaiok (%)	46,35
Beste probintzietan jaiok (%)	37,40
Atzerrian jaiok (%)	16,25

Enplegua

	2009
Establezimenduak eta enplegua jarduera adarraren arabera:	1.955,00

	2009
Industria eta energia (kop)	
Eraikuntza (kop.)	415,00
Merkataritza, ostalaritza, garraioak (kop.)	2.016,00
Bankuak, aseguruak eta enpresa zerbitzuak (kop.)	581,00
Bestelako zerbitzu jarduerak (kop.)	1.088,00

DATUAK ESPARRUKA

Familia

Euskararen erabilera handitu etxeko esparruan transmisioa ziurtatu eta familia kideen arteko hizkuntza izan dadin

	2009
Derrigorrezko hezkuntza sisteman sartzean, ama hizkuntza euskara duten haurren (%)	60,40
Etxean erabiltzen den hizkuntza	
Euskara (%)	42,17
Euskara eta gaztelania (%)	20,96
Gaztelania (%)	32,01
Beste bat (%)	5,40
Lehen hizkuntza (>5urte) adinaren arabera	
Guztira(kop.)	14.519,00
Euskara (kop.)	8.622,00
Euskara eta gaztelania (kop.)	922,00
Gaztelania (kop.)	4.839,00
Beste bat (kop.)	136,00
Hizkuntzaren bilakaera (>5urte) adinaren arabera	
Guztira(kop.)	14.519,00
Euskaldun zaharrak (kop.)	8.180,00
Jatorrizko elebidunak (kop.)	743,00
Euskaldun berriak (kop.)	1.173,00
Partzialki euskaldun berriak (kop.)	1.458,00
Partzialki erdaldunduak (kop.)	462,00
Gutziz erdaldunduak (kop.)	159,00
Erdaldun zaharrak (kop.)	2.344,00

Euskalduntzea-Prestakuntza

Euskararen aldeko motibazioa eta euskararen ezagutza handitu herritarren artean

	2009
Ikasle kopurua herriko euskaltegietan	360,00
Ikasleak/ (erdaldunak+ia euskaldunak)	250,00
Ikasleei eskainitako diru-laguntzak, guztira	12.544,00
Xede bereziekin antolatutako ikastaro kopurua	4,00
Xede bereziko ikastaroetako ikasle kopurua	60,00
Ikasleen jarraitasun-tasa	33,67
Biztanleriaren hizkuntza gaitasuna:	
	Elebidunak (%) 69,30
	Elebidun hartzaileak (%) 17,30
	Erdaldun elebakarrak (%) 13,40
Euskal hiztunen alfabetatze maila	
	Alfabetatuak (%) 70,20
	Erdizka alfabetatuak (%) 26,00
	Alfabetatu gabeak (%) 3,80
Orokorrean, kaleko euskararen erabilera (%)	51,50

Helduen prestakuntza eskaintzan euskararen erabilera handitu

	2009
Helduen prestakuntza euskaraz, edo batez ere euskaraz, ematen duten akademia/zentro/elkarteak (%)	
Udaletik kanpoko egiturek euskaraz ematen dituzten ikastaroak (%)	
Udalak antolatzen dituen euskarazko ikastaroak (%)	
Ikasle kopurua euskaraz emandako ikastaroetan (%)	

Irakaskuntza

Euskarazko ikastereduak sustatu

	2009
0-3 urte bitarteko udalerriko haur kopurua	
0-3 bitarteko plaza kopurua euskaraz	
0-3 bitarteko matrikulazioa euskaraz (%)	100,00
Haur eta Lehen Hezkuntzako plaza kopurua D eremuan	2.121,00
Haur eta Lehen Hezkuntzako matrikulazioa D eremuan (%)	98,20
DBHko plaza kopurua D eremuan	779,00
DBHko matrikulazioa D eremuan (%)	88,83
Batxilergoko plaza kopurua D eremuan	534,00
Batxilergoko matrikulazioa D eremuan (%)	95,88
Lanbide Heziketako plaza kopurua D eremuan	
Lanbide Heziketako matrikulazioa D eremuan (%)	
Etorri berrien matrikulazioa D eremuan (%)	69,50

Eskolaz kanpoko prestakuntza jardueratan euskararen erabilera areagotu

	2009
Eskolaz kanpoko prestakuntza euskaraz, edo gehienbat euskaraz, ematen dituzten akademiak (%)	
Eskolaz kanpoko prestakuntzan euskaraz ematen diren ikastaroak (%)	
Ikasle kopurua eskolaz kanpoko euskarazko ikastaroetan (%)	

Administrazioa

	2009
Esparru honi dagokion datu bilketa egiteko joan zaitez hasierako orrira, han hautatu Erabilera Plana, eta horren barruan, Datu bilketa. EBPNko datu bilketatik irten baino lehen gorde orain arte egindakoa.	

Lan mundua

Lan munduan euskararen erabilera handitu

	2009
Udalerriko enpresak, guztira	144,00
Erabilera plana duten enpresak (%)	25,00
Euskararen erabilerari lotuta Bikain ziurtagiria duten enpresak (%)	

Merkataritza eta ostalaritzan euskararen erabilera handitu

	2009
Merkataritza eta ostalaritza arloko establezimenduak, guztira	585,00
Euskararen erabilerari lotutako Bikain zigilua duten establezimenduak (%)	

Aisia

Aisialdi eskaintzan euskararen erabilera handitu

	2009
Euskaraz, edo batez ere euskaraz, funtzionatzen duten aisialdi taldeak (%)	100,00
Udalak euskaraz antolatzen dituen aisialdi ekimenak (%)	100,00

Kirola

Kirol eskaintzan euskararen erabilera handitu

	2009
Euskaraz, edo batez ere euskaraz, funtzionatzen duten kirol taldeak/klub-ak (%)	60,00
Kirol taldeetan euskaraz dakiten begiraleen presentzia (%)	80,00
Herriko kiroldegian euskaraz eskaintzen diren kirol ikastaroak (%)	95,00
Herriko kiroldegian euskarazko ikastaroetan partaidetza (%)	91,00

	2009
Euskararen presentzia herriko kirol gune nagusietako paisaian (%)	90,00

Kulturgintza

Kultur eskaintzan euskararen erabilera handitu

	2009
Kultur programazioan euskaraz antolatutako ekimenak	26,00
Euskaraz antolatutako ekimenetan partaidetza (%)	30,74

Euskarazko kultur ekoizpenak eta sormena bultzatu

	2009
Herritarren euskarazko kultur ekoizpenak sustatzera bideratutako baliabideak (#)	
Lagundutako ekoizpen/proiektu kopurua	
Lagundutako pertsona/talde kopurua	

Euskaraz irakurtzeko zaletasuna handitu

	2009
Udal liburutegian euskaraz erabilgarri dauden irakurgaiak (%)	
Liburutegian herritarrek euskaraz hartutako irakurgaiak (%)	

Tokian tokiko hizkera, toponimia, historia, ohiturak jaso eta hedatzea sustatu

	2009
Tokian tokiko hizkeraren erabilera (kale neurketarekin batera neurtu bada)	
Sortu eta hedatutako produktu kopurua euskarria edozein delarik ere (liburu, jolas, ...)	

	2009
Informazio honen hedapenera zuzendutako ekimen kopurua	

Erlijio saioetan euskararen erabilera handitu

	2009
Sinesmen-mota guztiak aintzat hartuta, erlijio saioak guztira	
Sinesmen-mota guztietako erlijio saioak aintzat hartuta, euskararen erabilera (%)	
Sinesmen-mota guztiak aintzat hartuta, euskarazko erlijio saioetako partaidetza (%)	

Komunikabideak

Herrian edo eskualdean euskarazko komunikabideen garapena sustatu edota euskararen erabilera bultzatu egungo komunikabideetan

	2009
Euskara hutsezko komunikabideak (%)	80,00
Euskararen erabilera euskara hutsezkoak ez diren tokian tokiko komunikabideetan (%)	20,00

Publizitatean euskararen presentzia bultzatu

	2009
Udalak eta bere menpeko erakundeek euskaraz argitaratutako publizitatea (%)	
Enpresa, merkatari eta elkarteei eskainitako baliabideak publizitatea euskaraz egiteko	

Teknologia berriak

Teknologia berrietan euskararen erabilera handitu

	2009
Udaleko web orrira euskaraz egiten diren sarrerak (%)	

	2009
Udalaren euskara txokora egiten diren sarrerak	
Sarean euskararen presentzia gehitzera bideratutako baliabide kopurua (#)	
Udal liburutegiko teknologia berrietan oinarritutako euskarazko materialak (%)	
Udal liburutegiko teknologia berrietan oinarritutako euskarazko materialaren erabilera (%)	

IKUSPEGI KUALITATIBOA

IKUSPEGI KUALITATIBOA

Euskara zerbitzua

Indarguneak	Ahuleziak
<p>2.- Aurrekontuari dagokionean izandako bilakaera oso positiboa izan da (2004 eta 2008 urteak,</p> <p>3.- Plan Estrategikoaren betetze-mailari bagagozkio, esan behar %92a bete egin dela (proposatutakoa ekintza 140 eta bete direnak 129).</p> <p>4.- Gizarte eragileekin lana areagotu da nabarmen:Udal Euskaltegia, Gernikako AEK, irakaskuntza zentroak, merkataria, enpresariak, elkarteak, Kontseilua, Euskaltzaindia, Labayru.</p> <p>5.- Eragileekin lan egiteko bilguneak sendotu egin dira: Udal Eskola Kontseilua, Berbalaguneko Talde Eragilea, Administrazioako Erabilera Planerko Talde Eragilea, Gazte Plana eratzeke bilguneak/foroak, Inmigratio Plana eratzeke bilgunea/foroa).</p> <p>6.- Beste udalerrietako Euskara Zerbitzuekin elkarlana sendotu da, Alkarbide bitarteko.</p> <p>7.- Lehendik landuta zegoen esparru batzuetako jardunbidea Plan Estrategikoarekin uztartu ahal izan da: irakaskuntza, merkataritza/enpresak/elkarteak, Gizarte Zerbitzuetarako Mankomunitatearekin elkarlana.</p> <p>8.- Ekintzarik gehien garatu den helburu estrategikoa #euskararen erabilera#-rena izan da, ekintza guztien %48a, eta urteroko joera</p>	<p>2.- Euskara Batzordearen dinamika eten egin da duela hiru urte eta oraintsu eutsi zaio berriro dinamizatzeari.</p> <p>3.- Administrazioako erabilera Planean gora-behera asko izan dira, politikoen aldetik inplikazio falta batzuetan eta, beste batzuetan, Euskara Zerbitzuak daukan autonomia eza.</p> <p>4.- Kultura Arloko bilgunerik ez da sortu eta Kultura Plana eratzeke dago. Horrek, zailago egin du Euskararen Plan Estrategikoarekiko uztarketa.</p> <p>5.- Hizkuntza Politikarako Sailordetzan arduradun aldaketa asko, giza baliabide gutxi eta bertatik zuzentzen diren aplikazio informatikoak zaharkituak geratu zaizkigu. Oraintxa ari gara IRATI aplikazio berriarekin.</p>

<p>horixe izan da.</p> <p>8.- Erabilitako aurrekontuei dagokienean, helburu estrategiko guztien diru kopuruek gora egin dute urteak urtera.</p> <p>9.- Aurrekonturik potoloena eskatu izan duen helburu estrategikoa #euskararen erabilera#-rena izan da (2003an aurrekontuaren %38,5; 2008an %49,9).</p> <p>10.- Sei urteko epean guztira burutu diren ekintzak 129 izan dira, aurreikusita zeuden 140 ekintzetatik %92,14a.</p> <p>11.- Euskararen politikari buruz udalaz kanpoko erakundeetatik egindako neurketak oso positiboak izan dira (Prospektikerrek eskualdean 2005ean egindako inkestan, biztanleriak gehien baloratzen izan duen arloetako bat #euskararen egoerarekiko atentzioa# zen; Kontseiluak 2006an 66 udalen hizkuntz politikari buruz egindako inkestaren arabera ere, Gernika-Lumo rankingeko 8garrena litzateke.</p>	
--	--

Biztanleria

Indarguneak	Ahuleziak
<p>2.- 1.981etik 1996ra bitartean, euskaldunen portzentajeak 9,8 puntu egin zuen gora; elebidun hartzaileen portzentajeak eta elebakarrenak, berriz, behera egin zuten (2,77 eta 6,95 puntu, hurrenez hurren).</p> <p>3.- Inguruko udalerriekin konparaketa eginez gero, Gernika-Lumon euskaldungoaren goranzko joera nabarmenagoa da Bermeon eta Mungian baino.</p> <p>4.- Gernika-Lumoko biztanleriaren (2001ean 15.439 biztanle) %57a euskaraz alfabetaturik dago: euskaldunen %70,2 (7.510 bizilagun), eta ia euskaldunetatik %46,5 (1.241 biztanle).</p> <p>5.- 1984-2001 urte bitartean, ezagutzaren bilakaera oso positiboa izan da haurrena: 19 puntu gora (%83,9)</p>	<p>2.- Inmigrazioaren eragina nabarmendu egin da azken hiru urteetan (2008an 1.276 etorkin, biztanleriaren %7,8). Biztanleriak gora egin du etorkinei eskerrak eta bertokoak gutxitu egin dira.</p> <p>3.- Haurren erabilerak goranzko bilakaera izan duen arren, 1996-2001 urte bitartean behera egin du 2,3 puntu (etorkinen eragina?).</p> <p>4.- Helduengan, ezagutzak 1,4 puntu behera egin du 1984-2001 urte bitartean (egonkor mantendu da % 62ren inguruan).</p> <p>5.- Adinekoen ezagutzak ehara egin du 4,6 puntu 1984-2001 urte bitartean (1960-1975 urte bitarteko industrializazioaren ondorioz lanean etorritakoak pilatu dira adin multzo horretan).</p>

<p>6.- Gazteen ezagutzaren bilakaera izan da positiboena 1984-2001 urte bitartean: 32 puntu hobetu dute hizkuntza gaitasuna tarte horretan (gaur egun %86,7, haurrena gaindituz).</p> <p>7.- Gazte eta helduen artean erdaldunen portzentajeak gutxitu egin dira eta. Ondorioz, ezagutza gaztetzen ari da.</p> <p>8.- Euskaldun berriak ia bikoiztu egin dira 1991-2001 epean; portzentajerik handiena gazteen artean daude (5 gaztetxoetatik bat euskaldun berria da).</p>	
---	--

Enplegua

Indarguneak	Ahuleziak

Familia

Indarguneak	Ahuleziak
<p>2.- 2003-2008 eperako Plan Estrategikoan, esparruko betetze-maila ehunetik ehunekoa izan da.</p> <p>3.- Plan Estrategikoaren bitartez, bideak jorratu dira familiengana iristeko (irakaskuntza zentroak, bertako guraso elkarteak, Anbulatorioarekin hitzarmena)</p> <p>4.- Euskaldun zaharrak gehienak dira (hamarretik ia sei) eta portzentajea mantendu egin da 1991-2001 urte bitartean. Eragin positiboa du familietako euskaldunen dentsitatean duen eraginagatik.</p> <p>5.- Gernika-Lumon etxean ama-hizkuntza euskara dutenen kopurua gutxitu den arren (2001ean 9.138 eta 2006an 8.857), etxean erabiltzen dutenena gehitu egin da (2001ean 6.379 eta 2006an 6.826).</p> <p>6.- Familiaren esparrua lantzeko beste esparru batzuekiko loturak finkatu dira.</p> <p>7.- Alkarbide Erakundearen koordinaziopean,</p>	<p>2.- Euskaldunen portzentajeak euskaldunberriei eskerrak gora egin duen arren, etxeko erabilerak ez du neurri berean gora egin.</p> <p>3.- Beldur gara ez ote duen familiak ikastetxea hartuko hizkuntza ohiturak finkatzeko erreferente bakartzat. Beharrezko da, hargatik, familietara beste bide batzuetatik ere ailegatzea.</p> <p>4.- Zailagoa da esparru honetan ekitea beste batzuetan baino, ez dagoelako gizarte mailan familiaren partaidetza bidera dezakeen erakunderik.</p> <p>5.- Daukagun egitekorik garrantzitsuena: Euskara Zerbitzuak udal saila desberdinekin elkarlana bultzatu beharra, familia osoari begirako egitasmoak burutzearen udal saila guztietatik eta koordinazioari eutsi.</p> <p>6.- Euskararen transmisioan familiaren eragina jaitsi egin da. Beraz, hizkuntza ohiturak errotzeko hizkuntzalaritzan erreferenterik sendoena duguna, indarra galtzen ari da.</p>

<p>beste Euskara Zerbitzuekin elkarlanean kanpaina eta material asko ekoizten ari gara.</p> <p>8.- Gure udalerrian dauden etorkinetatik (1.276) ia % 60 dira gaztelania ez den beste hizkuntza batekoak. Horien seme-alabengan eragitea errazagoa da.</p>	
---	--

Euskalduntzea-Prestakuntza

Indarguneak	Ahuleziak
<p>2.- 2003-2008 Plan Estrategikoan esparru honen betetze-maila ehunetik ehunekoa izan da (aurreikusitako 9 ekintzak gauzatu dira).</p> <p>3.- Euskalgintzako eragileekin (Udal Euskaltegia eta AEK euskaltegia) izandako elkarlana finkatu egin da, herri mailan egiten den eskaintza EBPNk lehenetsitakoari lotzea adostuz (ikastalde bereziak).</p> <p>4.- 2003ko Kudeaketa Planak 4 ekintza izan zituen aurreikusita eta gaur arte burutu direnak 9 izan dira. Horrek adierazten digu sortu den dinamika positiboa izan dela.</p> <p>5.- Aipagarria dugu Berbalagun egitasmoa, AEKren koordinaziopean burutzen dena, Udalarekin sinaturiko hitzarmena bitarteko.</p> <p>6.- 2001eko datuen arabera, euskaldungoaren % 3,8 baino ez da alfabetatu bakoa (%70,2 alfabetatua eta %26 erdizka alfabetatua).</p> <p>7.- Azpimarratzekoa dugu 1994tik 2003 urtera bitartean matrikulazio orokorrak izandako beheranzko joera gainditu egin dela 2004tik 2008ra bitartean.</p> <p>8.- Euskalduntzerako matrikulazioaren beheranzko joera (1996-2003 urte bitartea) eten egin da 2004tik 2007ra; 107-112 urratsetan gertatu da pilaketa azken hiru urteetan.</p>	<p>2.- Giza-talde berezietan begirako eskaintza indartu egin beharko litzateke gehiago oraindik, HABEk eskaintzen dituen moduluetatik kanpo baleude ere.</p> <p>3.- Ekiditu egin behar da Berbalagun egitasmoa geto bihurtzea. Udalerriko zerbitzu/elkarte/enpresa publiko zein pribatuen jarduerekin uztartzeko ahalegina falta da.</p> <p>4.- Alfabetatzerako matrikulazioa moteldu egin da eta ez da sasoia pentsatzeko alfabetatze beharrianik ez dagoenik (45-60 urte bitarteko helduen artean hutsunea oraindik: egungo guraso asko, familia transmisioan garrantzi handikoak).</p>

Irakaskuntza

Indarguneak	Ahuleziak
<p>2.- Plan Estrategikoaren betetze-maila; aurreikusitako ekintzak 16 eta burutu 14.</p> <p>3.- Hezkuntza esparrurako bilgunea (Udal Eskola Kontseilua) sendotu egin da 2003-2008 eperako Plan Estrategikoarekin eta indartsu dirau.</p> <p>4.- Irakaskuntza mundua eta gainerako gizarte eragileen arteko zubiak eraiki dira (inmigraziorako teknikaria, berritzeguneko teknikariak, udal euskaltegia, AEK euskaltegia).</p> <p>5.- Udal Eskola Kontseiluan parte hartzen dute zentro guztiek (7 zentro) eta guztietan onartuta dute Normalizazio Plangintza, Ulibarri programa bitarteko.</p> <p>6.- Udalerrian D eredia da nagusi eta goranzko joera etenik bakoa da. Neurri berean, beheranzko joera dute A eta B ereduak.</p> <p>7.- Ikasle etorkinak D ereduan daude matrikulatuta gehienak (%70 inguru) eta B ereduan gainerakoak (%30).</p>	<p>2.- Normalizatuen jotzen izan dugun esparrua, ikasle etorkinen eragin berezia jasaten ari da.</p> <p>3.- Ikasle etorkinen kopurua bikoiztu egin da azken lau urteotan eta ikasle etorkinen pilaketa gertatu da Mertzedek ikastetxean.</p>

Administrazioa

Indarguneak	Ahuleziak
<p>2.- Esparru honen aurrekontua izan da gehien potolotu dena (2003an 21.636 #, helburu nagusiarekikoaren %11,78 eta 2008an 198.000#, guztiaren %30,24). Ahaztu barik bertan txertatuta dagoela giza baliabideen gastua beste esparruetan eragiteko.</p> <p>3.- Azpi-erakunde batzuen mikroplanak eratzeari ekin ahal izan zaio, kasurako Musika Eskolan, eta oso emaitza onak lortuz.</p> <p>4.- Erabilera plan berrirako aplikazio informatiko berezia eratu ahal izan dugu udaleko informatika zerbitzuarekin, AEBEMET aplikazioa ezin izan dugulako erabili.</p> <p>5.- Hizkuntza eskaizunei dagokienean, betetze mailak bilakaera positiboa izan du. 1999an 59</p>	<p>2.- Administrazioko erabilera plana aurrera ateratzea, politikarien pentsura egon da neurri handi batean eta ez litzateke horrela izan behar.</p> <p>3.- Administrazioko Erabilera Planaren sustapenez ardura izan Talde Eragileak ez du iraunkortasunik izan.</p> <p>4.- Erabilera planaren jarraipena egiteko zailtasunak eduki ditugu, HPSren AEBEMET aplikazioa ez da erabilgarria izan.</p> <p>5.- Udal administrazioaren kontratazioetarako Erabilera planak irizpideak finkatu arren, Euskara Zerbitzuak ez du aukerarik izan irizpideok betetzen izan diren kontrolatzeko.</p>

<p>derrigortasundunak eta 29 egiaztatuak (%49,15); 2008an 101 derrigortasundunak eta 67 egiaztatuak (%66,33).</p> <p>6.- Udal administrazioaren egungo egoera hobea da: 2008an euskaraz eta elebietan sortutakoa %43,24 eta 2001ean euskaraz eta elebietan sortutakoa %18,60.</p> <p>7.- Euskaraz sortutakoa dela-eta izandako igoera, barne harremanetan gertatu da batik bat.</p> <p>8.- Udal Administrazioiko Euskara Batzordea abian jarri da 2008an.</p>	<p>6.- Euskarazko produkzioa oso txikia da, eta gaztelaniaz sortzen dena euskarara itzultzen da (produkzioaren % 40,93). Gaztelaniatik euskararako itzulpengintzaren morrontzapean erortzen ari gara.</p> <p>7.- Udal administrazioak kanpo harremanetarako sortutakoan dago akatsik handiena; 2001ean eta 2008an euskaraz ekoiztutakoaren portzentajea ez da aldatu.</p>
---	---

Lan mundua

Indarguneak	Ahuleziak
<p>2.- Plan Estrategikoa garatu ahala bikoiztu egin da esparru honetan erabili den aurrekontua, baina guztiarekiko portzentajea orekatu egin da (2003an 15.025 #, helburu nagusiarekikoaren %8,18 eta 2008ko 31.500 #koa, guztiaren %4,81).</p> <p>3.- Esparru honetako betetze-maila ia ehunetik ehunekoa izan da (aurreikusitako ekintzak 13 eta gauzatutakoak 12).</p> <p>4.- Enpresa munduan emaitzak oso onak lortu dira denbora gutxitan: 2001etik ona enpresa kopurua gehituz joan da eta fideltasun/seriotasun handia erakusten dute.</p> <p>5.- Hitzarmenkide ditugu 36 enpresa txiki eta ertain eta 120 merkatari/tabernari. Euren artean, eredu daitezkeenak.</p> <p>6.- Euskararen erabilera dela-eta, goranzko joera dago orokorrean (enpresetan nabarmenago eta merkataritzan apalago).</p> <p>7.- 2008an 5 enpresa dira Erabilera Planak onartuta eta garatzeari ekiten diotenak.</p> <p>8.- Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Hizkuntza Eskubideei buruzko 123/2008</p>	<p>2.- Zer egin asko dago, merkataritzan, enpresetan eta, batik bat, profesionalen arloan.</p> <p>3.- Esparru honetan azpikontrataturik daude zerbitzu asko, kudeaketa eta aholkularitza enpresen eskuetan uzten direnak; horiekin eragitea zailagoa da.</p> <p>4.- Udalerri gaindikoa erakundeetan ezin eragin izana (Merkatal ganbarak, enpresari elkarteak eta federakuntzak, goi erakundeak #aseguru etxe, banketxe eta abarren kasuan-).</p> <p>5.- Lanhitz egitasmoa dela-eta HPSrekin koordinazioa apenas izan da.</p> <p>6.- Udalerri mailako merkatari elkarteekin lanerako bideak seriotasun gehiagorekin jorratu behar ditugu.</p>

Dekretuaren eragina mesedegarri. Dekretu horrek goitik eman dezakeen astinduari, modu positiboan hartuta, probetxua atera behar diogu.

Aisia

Indarguneak	Ahuleziak
<p>2.- Esparruan erabilitako aurrekontua laukoiztu egin da 2003tik (22.838 #) 2008ra (88.500 #); aurrekontu osoarekiko portzentajea mantendu egin da (2003an % 12,44 eta 2008an %13,52).</p> <p>3.- Plan Estrategikoak esparru hau gorpuzteko aukera eman zuen; ordura arte sakabanatuta zegoena nolabait planifikatzeko oinarriak finkatu zituen.</p> <p>4.- 2001ean egin zen diagnostikoan, Gazte Elkartearen esparrua normalizatuenetako bat zela atera zitzaigun.</p> <p>5.- Gazte Planaren eraketa prozesuan partaide izan ginen Euskara Zerbitzuko Teknikariok.</p> <p>5.- Euskara Teknikaria I-aren ardurapean Gaztedi Arloko zati handi bat egon denez, hizkuntza irizpide zehatzak finkatu eta normalizazioa helburu hainbat gauza bideratu ahal izan dira.</p>	<p>2.- Gaztediaren arloan eragiteko Gazte Plana ezinbesteko tresna izanda, ez da abian jarri. Gaztediaren arloan bilgunea falta da.</p> <p>3.- Gaztedirako giza baliabide eskasia; arlo horretako politikan eragiteko tresnak bai baina baliabide gutxi.</p>

Kirola

Indarguneak	Ahuleziak
<p>2.- Izan dugun lanik gogokoena Kirol Patronatuarekin elkarlan emankorrari eustea izan da, honek nahiko finkatuta dituelako hizkuntza irizpideena.</p> <p>3.- Hitzarmengintza kanpaina ia kirol talde guztiak ditugu sinatzaile (20 elkartetik 15 dira hitzarmen kide) eta talderik indartsuenak guztiak daude.</p> <p>4.- Kirol elkarteetako kideen ezagutza mantendu den arren, erabilerak gora egin du (2001ean %44 eta 2007an %57,50) eta kanpora begirako erabilera oso altua da (%72).</p>	<p>2.- Administrazioaren goi erakundeetan (Aldundietan eta Jaurlaritzan) nola ekin asmatu behar dugu, Kirol Federazioei begira hizkuntza irizpide zorrotzagoak erabil ditzaten.</p> <p>3.- Udalerri mailako kirol elkartearen barrurako erabilera baxua da (%52), ezagutzarekin (%80) eta kanpo erabilerarekin (%72) alderatuta.</p>

<p>5.- Kirol Patronatutik egiten den eskaintza udalerrriaren egoera soziolinguistikoaren ildotik doa eta, ondorioz, normalizazioaren bideari darraio.</p>	
---	--

Kulturgintza

Indarguneak	Ahuleziak
<p>2.- Hitzarmengintza kanpainen daude kultur elkarte gehienak (36tik 28) eta euren artean garrantzitsuenak.</p> <p>3.- Kultur elkarteek ez dauketa goragoko erakundeekiko menpekotasunik.</p> <p>4.- Elkarreetako kideen euskararen ezagutza (%85) mantendu den arren, erabilerak gora egin du eta oso altua da (%73,00).</p> <p>5.- Jaietako ekitaldiak/ikuskitzak euskarazkoak dira ia guztiak (2007ko %91,66), maila informalean eta kaleko erabilera orokorrean eragiteko tresna preziatua.</p>	<p>2.- Udalerrri mailan Kultura Plan baten falta sumatzen da, hizkuntza irizpideak bere baitan jasoko lituzkeena.</p> <p>3.- Kultur Etxea Fundazioaren euskarazko ikuskizunen portzentajea (%50), udalerriko egoera soziolinguistikoaren (euskaldunak %69,3 eta ia euskaldunak %17,3) azpitik dago eta kaleko euskararen erabileraren (%51,4) parean.</p> <p>4.- Euskarazko ekitaldietako ikusleen pisua jeitsi egin da (2005ean %44,32 eta 2007an %30,74), euskarazko programazioaren portzentajea egonkortu den arren (%50).</p>

Komunikabideak

Indarguneak	Ahuleziak
<p>2.- Komunikabideen esparrurako 2003an 12.621 #ko aurrekontua (guztiaren %6,87) eta 2008an 107.000 #koa (aurrekontu guztiaren %16,34).</p> <p>3.- Hedabideen esparruan eskaintza zabala euskaraz izatea lortu egin da neurri handi batean (toki telebista, eskualdeko egunkaria, udalerriko hilabetekaria).</p> <p>4.- Abian dauden egitasmoak enpresa ekimenak dira. Horrek, nolabaiteko balio erantsia ematen die proiektuei, itxuraz bideragarri direlako.</p> <p>5.- Etxe guztietan dago euskarazko hedabideak jaso eta euskaraz ikus-entzunezkoak dastatzeko aukera eta, bertoko albisteak bitarteko, modu erakargarrian gainera.</p>	<p>2.- Udalerriko hedabideek erabiltzen dituzten hizkuntza ereduak ez dira berdinak eta hiztunekiko komenigarria litzateke horretan nolabait bateratuta jotzea.</p> <p>3.- Euskarazko hedabideak administrazioaren dirulaguntzen pentsura daude gaur egun; dinamika kaltegarria bihar-etzirako. Administrazioaren dirulaguntza, momentuz eta zoritxarrez, behar-beharrezkoa da.</p> <p>4.- Esparru honetan toki mailan ekiteko irizpideak finkatzearen, diagnostiko sakona egin beharra dago (hedabideen arrakasta eta bideragarritasuna neurtu, euskal hiztunen gustuak ezagutu,...).</p>

6.- Udalerriko hedabideen potentzialitatea eta eragina handia da: Hitza egunkaria (2007an eskualdeko egunkaririk irakurriena -11.000-), Oiz-mendi Telbista (32.800 ikusle bi eskualdeetan -Busturiladea eta Lea-Artibai-, biztanleriaren %50).

Teknologia berriak

Indarguneak	Ahuleziak
<p>2.- Udalaren web orrian euskararen atala egokitu da eta urteotan aberasteari ekin zaio.</p> <p>4.- Esparru honen izaera transbertsalak beste esparru batzuetan ekiteko bidea eman digu: - Elkarte, enpresa eta merkataritza arloan (hiztegi elektronikoak, euskarazko aplikazioak, agiriak.net, ikasare.net). - Hitzarmengintza kanpaina bitarteko, web orriak eratzeko merkatariei, enpresei eta elkarteei eskainitako baliabideak (teknikoak KZ guneak, itzulpenak Euskara Zerbitzuak).</p>	<p>2.- Ez dugu lortu esparru honetan adierazlerik eratzeari egindakoaren arrakasta neurtzeko.</p> <p>3.- Udalaren web orria orokorrean kudeatzeko baliabide/zerbitzu eta sentsibiliate falta nabaria da, eta hori euskararen atalaren kalterako ere bada.</p> <p>4.- Elkarte, erakunde, enpresa eta merkataritza arloan teknologia berriak zein neurritan eta zelakoak erabiltzen diren diagnostiko zehatza egin beharra dago udalerrian</p> <p>5.- Euskararen Aholku Batzordeko Batzorde teknologikoa egoeraren diagnostikoa egiten ari da daborduko, eta datozen urteotan euskarak sarean izan behar duen presentzia aurreikusitako beharko du, guretzat orientabidea. Bitartean, guk ezin askorik eragin.</p>